

‘Errege magoak’ ere preso en alde

Madrilgo Kongresuan kateatu ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar, Euskal Herriratzea eskatzeko

Erredakzioa / Donostia

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Madrilgo Kongresuko atean izan ziren atzo, bertako agintariei ikatza helarazteko. Ikatza ematearen arrazoia argi azaldu zuten Ekialdetik etorritako Errege Magoek: «Euskal Herriko hainbat eta hainbat umek euren senitarteko presoak etxetik hurbileko espetxeetara eraman ditzaten eginko eskaera ez baitute bete».

EKIALDETIK etorritako hiru Errege Magoek Madrilgo Kongresuaren atarian geldialdia egin zuten atzo, bertako agintariei ikatza uzteko. Baltasar, Meltxor eta Gaspar Kongresuko sarrerako harrizko lehoian kateatu ziren, Euskal preso en Euskal Herriratzea eskatzeko. Haiekin beste zenbait lagun ere izan ziren, eta haiek ere pankarta bat zabaldu zuten, legea bete dadila eskatzeko.

Protesta ekintzak minutu gutxi batzuk baino ez zuen iraun, baina Errege Magoek ekintzaren nondik norakoa eta zergatia azaldu zuten, idatzi baten bidez. Zabaldu-tako idatzia honelaxe hasten da: «Gaspar, Meltxor eta Baltasar gara, eta milaka eta milaka gutun jasotzen ditugu urtero eskaera sinesgaitzenerkin. Guk ahal dugun indar guztia jartzen dugu eskaera horiek betetzen, ume baten irribarrea argi izpi bat bezalakoexa baita».


Urteetan bete gabeko eskaera

Baina Errege Magoek eurek bete ezin dituzten eskaerak ere badirela azaldu dute, eta zehazki euskal herriko milaka umek egin eskaera aipatu dute. «Azken hamar urteetan Euskal Herriko milaka umek ohiko opariez gain, eskatu izan digute euren aita, ama, osaba edo izeba euren etxetatik hurbilen dagoen espetxetara ekartzea. Izan ere, senitartekoak urrutiko espetxetara dituztenez, izugarritzko bidaia luzeak egin behar izaten dituzte minutu gutxi batzuk haiekin egoteko, haiek ikustera joatea ia ezinezko bihurtuz, eta arrisku askori aurre eginez». Ekialdetik etorritako hiru erregeek azaldu dutenez, eskaera hori ikusita, gauzatu ahal izateko



JAGOBA MANTEROLA

Errege Magoak Kongresuko atarian kateatu ziren eta zenbait lagunek preso en aldeko pankarta zabaldu zuten.



JAGOBA MANTEROLA

Meltxor, Gaspar eta Baltasar kateatzen ari zirela ikusten bertan zegoen polizia korrika atera zen polizi gehiagoren bila, Errege Magoen protestaldia galarazi ahal izateko.

Kongresuko polizien ezustekoa

HIRU Errege Magoek Madrilgo Kongresuan eginiko protesta ekintzak ezustean harrapatu zituen bertako poliziak. Errege Magoak inguruan zebiltzala pertsona bati Kongresuko atarian dagoen lehoiaren alboan argazki bat ateratzeko eskatu zitoten, eta poliziak lasai begira gertatu ziren. Une horretan, ordea, erregeak lehoian kateatu ziren, eta «Euskal Presoak Euskal Herrira» ikurra atera zuten. Une berean, beste hiruzpalau

pertsona Kongresuko eskaileretara igo ziren, eta bertan gaztelaniaz «Zuen legeak bete. Euskal presoak Euskal Herrira» zioen pankarta zabaldu zuten.

Bertan ziren poliziek nahikoa azkar erreakzionatu zuten, eta, eskailertan ziren lagunei pankarta kendu ostean, erregeei kateak moztu zizkieten eta atxilotu egin zituzten identifikatzeko. Gerora, ordea, Meltxor, Gaspar eta Baltasar aske utzi zituzten.

aukerak aztertu zituzten, eta ikusi zuten horretarako inolako lege oztoporik ez dagoela. Baina, Errege Magoen zoritxarrerako, eskaera hori ez dute bete ahal izan, «indar arrotz batek» galarazi dielako. Hiru erregeek 120 umek euren senideak etxeratzeko ere eskatzen dietela azaldu dute, zigorraren hiru laurdenak beteta baitituzte, baina hori ere «indar arrotz batek» galarazten die.

Hori guztia dela medio, Errege Magoek ikatza utzi zuten kongresuan, eta presoak Euskal Herriratzea eskatu zuten, «ume horiek ezin baitira gehiago triste egon».

Beste hainbat taldek bat egin dute larunbateko manifestazioarekin

Erredakzioa / Donostia

LARUNBATEAN Bilbon preso en eskubide en alde egingo den manifestazioarekin beste zenbait taldek egin zuten bat atzo. Hala, Gureak, Anai Artean, Elkarri, Euskal Herrian Euskaraz, CNT eta Zarauzko EGIk eta Jarraik kaleratu zituzten prentsa oharra, jendeari Bilbora joateko deia egin ez.

«Estatu arrazoiaren ize nean, euskal preso politikoak urrunduak eta barreiatuak dira egun. Estatu arrazoi hori, giza eskubide en eta Europako presondegieta en erregiamenduen aurkako da arrunt. Preso en Euskal Herriratzea lehen urratsa da, egungo su-etena 2.000 urteko bakea bilaka dadin, eta presoak beren etxera itzul daitezen», azaldu du Anai Arteak. Gureak sustengu elkartek, berriz, preso en sakanaketa eta hurbilekoendako ondorio latzak azpimarratu ondoren, etzi Bilbon eta ondoko larunbatean Paris en egin en diren manifestaldietara deitu du.

Elkarri-k ere manifestaziora joateko deia egin du, espetxe politika «bidegabea» dela esanez, eta sofri mendua baino ez duela ekarri salatuz.

Zarauzko EGI eta Jarraik ere agiri bateratua kaleratu dute, Bilboko manifestaziorako deia egin ez.

Ibarretxe ez da izango

Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakari berria ez da Bilboko manifestazioan izango, eta haren Gobernu ko kontseilariei askatasuna eman die nahi dutena egiteko. Ibarretxe ez da bertan izango, «oreka politikoa lortzeko ardura handienaz jokatzeko apustua egin duelako», Ibarretxeren inguruko iturriek azaldu dutenez. Ekitaldi instituzionala ez dela ere aipatu da arrazoi gisa.